



JARRAIBIDEA, 2021EKO APIRILAREN 15EKOA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEEN KUDEAKETAKO ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ NORBERAREN EGINBEHARRETARAKO BAIMENAK EMATEA ARAUTZEN DA ALDI BATERAKO.

Euskal Autonomia Erkidegoko irakasle funtzionario izateko hautaketa -probetarako deialdia dela eta, probak datorren udan izango dira, eta aurreikusten da norberaren eginbeharretarako baimen-eskaeren kopurua ugari handituko dela 2020/2021 ikasturtean. Horrek eragina izan dezake irakaskuntzako zerbitzu publikoa behar bezala ematerako orduan, eta batez ere egun berezi batzuetan, esaterako ikasturtearen amaieran.

Norbere eginbeharretarako baimenen araudia 185/2010 Dekretuaren 58. artikuluan jasotzen da (Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmena onartzen duen Dekretuan). Artikulu horren 5) idatzatiaren arabera, bi egoera hartu behar dira kontuan:

- a) Zerbitzuaren beharrianak aintzat hartu beharko dira.
- b) Baimena ukatzen bada, erabakia arrazoizkoa izan beharko du.

Hezkuntza-administrazio honek zaindu egin behar du eraginkortasunez betetzen direla eman zaizkion eskumenak, eta hezkuntza-eskubidea babesten dela, konstituzioak jasotzen baitu. Horrez gain, bere menpeko ikastetxeen ikasleei behar duten arreta ematea ere zaindu behar du, eta horrek eskatzen du beharrezko prozedurak ezartzea ahalik eta eraginkortasunik handienaz eskaintzeko arreta hori eta arreta eragotzi edo gutxitzen duten eragozpenak desagerraraztea.

Ondorioz, arestian azaldutako guztia dela eta, norbere eginbeharretarako baimenak emateko araudia egokitu behar da orokorrean, nahiz eta era berezian eta bakarrik aldi baterako den. Adierazitako arrazoiak nahikoa dira baimenak ukatzeko. Beraz, ukatu behar direnean, ukatu egin beharko dira, ezartzen diren arau hauen arabera:

- 1.- 2021eko maiatzaren 20tik 2021eko ekainaren 20ra aplikatuko dira arau hauek.
- 2.- Norberaren eginbeharretarako baimen guztiak onartuko dira, eskatzeko arrazoiak hauetako bat bada:

- Ikasketa ofizialak egitea.



- Garatzeko bidean dauden herrialdeetan misioak gauzatzea.
- Administrazioen eta erakunde publikoen kidegoetan eta eskaletan sartzeko deialdietan jasotako hautaketa-saioetako ariketak egitea.
- Zigor askatasun-gabetzaileak betetzen dituzten odolkidetasun edo ahaidetasuneko bigarren gradura arteko senitartekoren bat bisitatzea.
- Erditze-edoskitze- edo adopzio- lizentzia bat luzatzea edo hilabete baino gehiagoko beste edozein lizentzia luzatzea baldin eta kasu horietan guztietan baimena, gutxienez ikasturtearen amaiera arte luzatzen bada.
- Odol- edo ezkontza-ahaidetasuneko 2. mailara arteko senideen gaixotasun larria eta 2 lanegun baino gehiago badira eta aurretik gaixotasun larri hori behar bezala justifikatuta badago.

3.- Aurreko paragrafoan aipatutako kasuetatik kanpo, adierazitako egunetan, eta adierazitako arrazoiak oinarri hartuta, norberaren gauzetarako baimena eman ahal izango da soil-soilik eskaeran tratamendu espezifikoak merezi duten salbuespenezko inguruabarrak daudenean. Kasu horietan, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari dagokio baimena ematea.

4.- Norbere eginkizunetarako baimenak ukatzeko ebazpenak jarraibide honetan eranstean den ereduaren araberrako euskarrian emango dira.

Lurralde ordezkaritzetako pertsonal zerbitzuek orokorrean arau horiek aplikatuko dituzte.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko apirilaren 15a.

BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO
LANGILEEN KUDEAKETAKO ZUZENDARIA

